

Monologoak eta zientzia maite dituzu?

2014/01/07

FECYT-ek eta British Council-ek **Famelab** monologo zientifikoaren nazioarteko lehiaketan parte hartzeko Estatuko bigarren edizioa antolatu dute.

Zientzia, ingenieritza edo matematika munduan murgilduta zaude eta zure lana publiko aurrean azaldu nahi?

Orduan monologo bat sortzeko aukera duzu, zure lana 3 minututan argituz. Grabatu zure monologoa eta lehiaketaren webgunera igo 2014ko urtarrilaren 16a baino lehenago.

Animatu eta parte hartu! Aukera paregabea izan daiteke zientzia eta teknologia gizartera zabaltzeko.

Informazio gehiago nahi baduzu, hemen **FameLab aurkezpenaren bideoa** duzu.



Famelab lehiaketa